

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2014ko irailaren 29an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

12.- ALDE ZAHARREKO SARBIDE SISTEMEA ETA ZEHARBIDEKO SEMAFOROEN MANTENTZE LANERAKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Planteatutako gaia

Bermeoko Alde Zaharreko sarbide sistema eta zeharbideko semaforo en mantinentu zerbitzua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Zerbitzu kontratua, prozedura irekiz bideratu da. Guztira sei enpresa aurkeztu dira:

- Telvent Arce Sistemas, S.A
- ETRA NORTE
- Ahel Efficiency, S.L./Legasko, S.L. ABEE.
- Dinycon Sistemas, S.L.
- Tecnologías Viales Aplicadas TEVA, S.L.
- Sociedad Ibérica de Construcciones Eléctricas (SICE)

Bigarrena: Kontratazio mahaia hurrengo egunetan batzartu da lizitatzailen eskaintzak aztertzeo:

- 2014ko ekainaren 5ean. "A" gutun azalak ireki ziran eta falta zan dokumentazinoa eskatu.
- 2014ko ekainaren 12an. "B" gutun azalak ireki ziran eta dokumentazinoa Zerbitzuetako teknikariari bideratu jakon.
- 2015eko uztaillaren 15ean. Enpresen ordezkariak batzarrean egozala, "C" gutun azalak ireki ziran eta dokumentazinoa Zerbitzuetako teknikariari bideratu jakon.
- 2014ko uztaillaren 24ean. Zerbitzuetako teknikariaren txostena aztertu ondoren, kontratazino mahaia esleipen proposamena egin eban.
- 2014ko abuztuaren 25ean. Lizitatzailen eskaintza ekonomikoek epe ezbardinak hartzen dabezala ohartu ondoren, lizitatzaille guztiei euren eskaintzak argitzeo eskaria egin jaken eta kontratazino mahaitik, zuzenketak egin ostean, esleipen proposamen barri bat egin zan.

Argudioak

Bakarra: Dokumentazio osoa aztertu ondoren eta kalifikatzeko sistema kontuan harturik, honako hau da jarritako puntuazioa:

| Eskaintzak | Zerbitzu proiektuaren balorazioa (0-20) | Proposamen ekonomikoa (0-70) | Matxuren aurrean izango dan erantzuna (0-10) | GUZTIRA (0-100) |
|---------------------|---|------------------------------|--|-----------------|
| Telvent | 15 | 52,70 | 3,13 | 70,83 |
| ETRA NORTE | 15 | 46,03 | 3,75 | 64,78 |
| Ahel / Legasko | 15 | 62,97 | 8,33 | 86,30 |
| Dinycon Sistemas | 5 | 70 | 3,25 | 78,25 |
| TEVA | 20 | 61,20 | 6,25 | 87,45 |
| SICE | 10 | 58,90 | 3,75 | 72,65 |

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: Alde Zaharreko sarbide sistema eta zeharbideko semaforoan mantentze zerbitzua Tecnologías Viales Aplicadas TEVA, S.L.. enpreari esleitzea 48.336,36 eurotan (BEZ kanpo) urteko, BEZari jagokon kantidadea 10.150,64 eurokoa da (Guztira: 58.487,00€).

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2014ko urriaren 2an.

ONETSIA
ALKATEA